

Julio Cortazar  
Antologia apetatsua

*Izenburua:* Julio Cortazar. Antologia apertatsua  
*Egilea:* Julio Cortazar  
*Itzultzailea:* Jon Alonso

*Azala eta bildumaren diseinua:* Esteban Montorio

*Argitaratzea:*

Txalaparta argitaletxea E.M.  
Nabaz-Bides karrika 1-2. 78. posta kutxa, 31300 Tafalla NAFARROA  
Tfnoa. 948 703 934, Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

*Txalpartaren lehenengo argitaldia*  
Tafalla, 2005eko martxo

*Copyright*

© Txalpartak edizioarena  
© Julio Cortazarren oinordekoek ipuin guztiena  
© Jon Alonsok itzulpenarena

*Diseinua*

Nabarrera argitalpen kudeaketa

*Inprimaketa*

Graficas Lizarra

*I.S.B.N.*

84-8136-400-2

*Lege gordailua*

NA-724-2005

JULIO CORTAZAR  
ANTOLOGIA APETATSUA



KORTAZARI

«Immigrazioaren eraginez sortutako koktel horietako bat naiz; aitaren aldetik, Cortazar abizen euskalduna da. Euskal Herrian izen hori bera daukan herrixka bat dagoela esan didate, nahiz eta ez naiz sekula bertan izan. Birraitona, Ameriketara joan zen euskaldun horietako bat zen, eta Saltan, Iparraldeko probintzia batean, nekazari-tzan aritu izan zen, eta agian, abeltzaintzan apur bat ere bai...».

## SARRERA HITZAK



**A**ntologia apetatsua berandu iristen da, Julio Cortazar hil zenetik hogeita bat urte bete direnean, gaztelaniazko XX. mendeko literaturaren gailur bat izanik, aspaldi merezi zuelako euskaraz ere irakurri ahal izatea. Ez dut ahaztutzen Gerardo Markuletak orain hamahiru urte euskaraturiko *Oktaedroa*, ezta itzultzaile horrek berorrek itzultitako “Hegoaldeko autopista” ipuina ere; baina uste dut, itzultzaile arduratsuaren lan bikaina ezertan ere gutxietsi gabe, gutxi dela liburu bat Cortazar bezalako idazle handi eta oparo baten erakusgarri ganorazkoa osatzeko. Garbi gera bedi hasieratik antologia apetatsu honek ere ez duela huts hori beteko, Markuletarena bezala, ments hori poliki-poliki erremediatzen joateko ahalegina bada ere.

Cortazarren obra luzea eta anitza da: poesia gutxi argitaratu zuen, antzerki-lan bat apenas, baina lau nobela, ipuin mordo bat, eta sailkapen zaileko testu multzo handia, saiakera, poesia eta narrazioaren arteko eremu oso berezi batekoa, Cortazarren mundu ikuskeraren erakusgarri fidela. Itzultzailea ere izan zen, aparta, eta lan asko egindakoa. Esan dezadan ezer baino lehen guk Cortazarren ipuinak hartu ditugula aintzat antologia giteko garaian, gainontzeko tes-

tuak gutxietsi gabe baina alde batera utzirik, bere obraren bizkarrezurra, edo ardatzetako bat bederen, ipuinek osatzen dutelakoan.

Antologia bat, edozein antologia, irudika litekeen onena izanik ere, jakintza mugatu batetik egindako aukeraketa arbitrarioa baizik ez da. Hau honela izanik ere, badira bere gain nahikunde zientifiko eta orojakileak hartzen dituzten antologiak. Ez da antologia honen kasua. Antologia hau apetatsua da, izan ere, antologia-egilearen kapritxoa baizik ez delako berau atontzeko irizpidea; egia da Cortazarren garai eta liburu batzuetako ipuinak sartu direla, eta alde horretatik lagin aski zabala dela; egia da, baita ere, idazle argentinarrrak erabilitako teknika askotarikoetako batzuk (denbora-planoen muntaketa paraleloak, denbora-jauziak, ahots ugari esaldi bakarrean biltzeko prozedura...) agertzen direla ipuinotan. Baina ez da katalogorik egin nahi izan, eta ez da irizpide *zientifikorik* erabili; hemen bildu diren ipuinak itzultzailearen gustukoak dira, eta, gustukoak izateaz aparte, maiz erabili edo aipatu ohi ditu, hala edo nola, Bergarako Idazle Eskolan edo herriz herri hainbat urtetan emandako ikastaroetan, eta horiexek izan dira, funtsean, antologatzeko irizpideak. Aski pobreak eta guztiz nahikeriazkoak, bistan denez; baina, zer antologiak ez ditu bekatu horiek berak –neurri handiago edo txikiagoan– egiten? Urteetan sartu nahi izan ditut Cortazarren test hauek nire eskoletan, urteetan amorratu naiz gaztelaniaz edo frantsesez baizik ez zeudelako euskaldunen eskura, ulertu nuen arte neronek egin ezean inork ez zuela beroriek euskaratzeko lanbidean minutu bat bera ere galduko. Horregatik daude hemen dauden ipuinak, eta falta dira, esaterako, *Los buenos servicios*, *El otro cielo*, *No se culpe a nadie*, *La isla a mediodía*, *Silvia* edo *Texto en una libreta*, igoal-igoal egin zitezkeen arren. Horregatik eta Txalapartakoek, eskertu baizik ezin egin dezakedan moduan, asmoa merezi zuela uste izan dutelako.

Hemen, noski, nire cortazarzaletasun aspaldikoaz hitz egin beharko nuke. Urte asko direla, bizpahiru idazleren lanarekin topo egiteak egin ninduela literaturzale esan dezaket. Horietako bat Cortazar zen, noski. Horretan ez nintzen izan bakarra, gainera. Inoiz idatzi dut, guretzat –eta hemen plurala ez da baliabide erretriko, ertzak ongi definiturik ez dituen multzo zehaztugabea baina

guztiz egiazkoa baizik-, Cortazar eta beste batzuk zirela medio, literatura norberaren bizipenarekin nahasten zen toki bizi bat izan zela, zeinean bildu baitziren norbera hobea izateko esperantza eta mundua aldatzekoa, elkarren ondoan, elkarren osagarri. Urte mor-do bat geroago, justua zen testu batzuk nostalgiari ebastea, bere bali-o literarioaren argi hutsez dir-dir egin dezaten, Cortazar bizardun edo bizarrik gabeko baten erreibindikazioa (norberak ikusiko du), beste baterako utzirik. Cortazar idazle izugarri abila zen, beste gau-za askoren artean, eta asko dago berari ikasteko eta berarekin goza-tzeko. Eta hori da dena.

Esan dezadan azkenik Cortazarren gaztelania joriaren erritmoa eta musikalitatea, jazz-ukitua, euskaraz ulergarria den testu batera isurtzea ez dela batere egiteko erraza. Horretan saiatu da itzultzailea buru-belarri, bere ahalbideen arabera, industriak ezartzen dituen mugak ezin ahazturik, baina, batez ere, garai honetan hizkuntzari buruz dauden aurreiritziak eta iritziak zeharkatzeko, puskatzeko, hankaz goratzeko ausardiarik gabe. Ezin jakin helburua noraino bete den. Etorriko ahal dira itzultzaile belaunaldi berriak, talentuz hobeki hornituak, aurreiritzietatik askeagoak eta baldintza hobea-goen jabeak, itzultzaile apal honek lortu ez duena lortuko dutenak, baita horretarako hainbat muga, fisiko eta psikologiko, egiazko eta gezurrezko, hautsi behar badituzte ere!

*Jon Alonso*



1

ETXE HARTUA





**E**txea maite genuen, handia eta antzinakoa izateaz aparte (gaur, antzinako etxeak jausten direnean, beren materialak saltzea onuragarriagoa denez), gure birraiton-birramonen, aitaren aldeko aitonaren, gure gurasoen eta haurtzaro guztiaren oroitzapena gordetzen zituelako.

Irene eta biok ohitu ginen bertan bakarrik irauten, eta hori erokeria hutsa zen, etxe hartan zortzi pertsona bizi zitezkeelako elkarri traba egin gabe. Garbiketa goizean egiten genuen, zazpitan jaikitzen ginelako, eta hamaikak irian uzten nizekion azken gelak Ireneri, erreparasatzeko, eta sukaldera joaten nintzen. Eguerdian bazkaltzen genuen, beti puntual; ordurako ez zegoen ezer egiteko, plater zikin gutxi batzuk garbitzea ez bazen. Atsegin egiten zitzaigun bazkaltzea etxe sakon eta isila gure gogoan, eta nola moldatzen ginen garbirik edukitzeko pentsatzen genuela. Batzuetan etxeak galarazi zigula ezkontza uste izatera iritsi ginen. Irenek bi senargai uxatu zituen arrazoi handirik gabe, niri Maria Esther hil zitzaidan elkarrekikoa finko egin baino lehenago. Berrogeietan sartu ginen inoiz adierazi gabeko ideia batekin, alegia, gurea, anai-arreben arteko ezkontza moduko hura, birraiton-birramonek gure etxean finkatu zuten genealogiaren bukaera beharrezkoa zelako ideiarekin.

Egunen batean han hilko ginen, etxea lehengusu lauso eta muker batzuen eskuetara iritsiko zen, horiek lurrera abailduko zuten lur sail eta adreiluekin aberasteko; edo hobeto, guk geuk irauliko genuen justizieroki beranduegi baino lehen.

Irene inori traba ez egiteko jaiotako neska zen. Goizeko egitekoak eginda, egunaren gainontzekoa puntua egiten pasatzen zuen, bere logelako besaulkian. Ez dakit zergatik jarduten zuen hainbeste denbora puntua egiten, nik uste dut emakumezkoek puntua egiten dutela lanbide horri esker deus ez egiteko aitzakia aurkitzen dutelako. Irene ez zen horrelakoa, beti gauza beharrezkoak ehuntzen zituena, negurako puntuzko prendak, galtzerdiak niretzat, berarentzat *mañanidak*<sup>1</sup> eta txalekoak. Batzuetan txaleko bat ehuntzen zuen eta gero ostera desegiten zuen zerbait ez zitzaiolako gustatzen; irrigarria gertatzen zen artile kizkurrezko pila saskitxoan ikustea, hainbat ordutan izandako forma galtzeari aurka eginez. Larunbatetan neu joaten nintzen hiri erdira artilea erostera; Irene konforme zegoen nire gustuarekin, aukeratutako koloreak gustukoak zituen, behin ere ez nuen artile-matazarik itzuli behar izan. Nik ateraldi horiek profitatzen nituen liburu dendetatik bueltatxo emateko eta literatura frantseseko nobedaderik ba ote zegoen alferrik galdetzeko. 1939. urteaz geroztik ez zen deus baliodunik iristen Argentinara.

Baina etxeaz mintzatu nahi dut, eta Irenez, nik ez dudalako garrantzirik. Neure buruari galdetzen diot zer egingo zukeen Irenek puntua egin izan ez balu. Batek berrirakur dezake liburu bat, baina jertse bat bukatu denean, ezin da berriz egin errepikapena eskandaluzkoa gertatu gabe. Egun batez ikusi nuen kanforrezko komodako azpiko tiradera lepoko zuriz, berdez eta lilaz beteta zegoela. Naftalinarekin zeuden, mertzeria batean bezala pilatuta; ez nuen adorerik izan Ireneri galdetzeko haiekin zer egin gogo zuen. Ez genuen bizimodua irabazi behar, hilero iristen zen alorretako sosa, eta dirua emendatzen zen. Baina Irene puntua egiteak baizik ez zuen entrentenitzen, iaotasun zoragarria zeukan, eta niri orduak joaten zitzaiz-

---

1. Mañanita: Puntuzko jantzia, sorbaldatik gerrirainokoa, emakumezkoek erabiltzen dutena ohean eserita egoteko. (I.O.).

kidan triku zilarreztatuak bezalakoak ziren bere eskuak, joan-eto-  
rrian zebiltzan galtzorratzak eta zoru gaineko saskitxoak ikusten,  
non matazak etengabe astintzen baitziren. Ederra zen.

Nola ez naiz gogoratuko etxeko banaketaz. Jangela, gobelino-  
dun aretoa, liburutegia eta hiru logela handi alderdi erretiratuenean  
zeuden, Rodriguez Peñari begira dagoenean. Pasabide batek eta  
bere haritz trinkozko atea bereizten zuten alderdi hori aurreko al-  
derditik, non komuna, sukaldea, gure logelak eta erdiko egongela  
baitziren. Logelek eta pasabideak egongelara ematen zuten. Etxera  
maiolikazko ezkaratz batetik sartzen zen, eta kantzal-ateak egonge-  
lara ematen zuen. Beraz, bat ezkaratzetik sartzen zen, kantzal-atea  
ireki eta egongelara pasatzen zen; albo banatan gure logeletako ate-  
ak zeuden, eta aurrean alderdi erretiratuenera eramaten zuen pasa-  
bidea; pasabidetik aurrera eginda, haritzeko atea zeharkatu eta  
etxearen beste alderdia hasten zen, edo bestela bazegoen haritzeko  
atea baino lehen ezkerretara hartu eta sukaldera eta komunera zera-  
man pasabide estuago batetik segitzea. Atea irekita zegoenean bat  
ohartzen zen etxea oso handia zela; bestela, orain eraikitzen den  
apartamentu horietakoa zirudien, kasik mugitzeko tokirik ez due-  
na; Irene eta biok etxearen alderdi honetan bizi ginen, ia inoiz ez  
ginen haritzeko atez beste aldera joaten, garbiketa egiteko ez ba-  
zen, ezin sinesteko modukoa baita altzariak hautsa nola biltzen du-  
ten. Buenos Aires hiri garbia baldin bada, bere biztanleei zor die, eta  
ez beste ezeri. Airean lur gehiegi dago, aire bolada bat nahikoa da  
hautsa aurkitzeko kontsoletako marmoletan eta makrame-karpeten  
erronboen artean; luma-eskuilaz ateratzea nekeza da, hegan egiten  
du eta airean eskegita geratzen da, eta handik gutxira berriz pausatu  
da altzarietan eta pianoetan.

Garbi gogoratuko dut beti, sinplea eta alferreko inguruabarrik  
gabe izan zelako. Irene bere logelan zegoen puntua egiten, gaueko  
zortziak ziren eta bat-batean otu zitzaidan mate-ontzia sutan jar-  
tzea. Pasabidetik joan nintzen haritzeko ate erdi-irekiaren aurre-  
raino, eta sukaldera doan bihurgunea hartzen ari nintzen jangelan  
edo liburutegian hots bat entzun nuenean. Soinua sor eta zehaztu-

gabea izan zen, aulki bat erortzean ateratzen denean bezala, edo el-karrizketa bateko marmar ito bat bezala. Une berean edo segundo bat geroago berriz entzun nuen, gela haietatik aterantz zetorren pasabidearen barrenean. Atearen kontra oldartu nintzen beranduegi baino lehen, kolpean itxiz, gorputza bere kontra bermatuz; zorionez, giltza gure aldetik zegoen jarrita, eta gainera morroilo handia itxi nuen segurtasun handiagoa edukitzeko.

Sukaldera joan nintzen, ontzia berotu nuen, eta mate-erretilua-rekin itzuli nintzenean zera esan nion Ireneri:

–Pasabideko atea itxi behar izan dut. Barreneko aldea hartu dute.

Ehuna erortzen utzi zuen eta bere begi sakon eta nekatuekin begiratu zidan.

–Ziur zaude?

Baietz egin nuen.

–Orduan –esan zuen galtzorrazak biltzen zituen artean– alde honetan bizi beharko dugu.

Ni artaz ari nintzen matea prestatzen, baina bera berandutu egin zen apur bat lanari berriz ekin baino lehen. Gogoan dut txaleko gris bat egiten ari zela; niri gustatzen zitzaidan txaleko hura.

Lehen egunetan ernegatuta ibili ginen alde hartuan biok utzi genituelako maite genituen gauza asko. Literatura frantseseko liburuak, esaterako, guztiak liburutegian zeuden. Irenek karpeta batzuen falta sentitzen zuen, baita neguan asko berotzen zuten txapinena ere. Berdin nik ipuruzko pipa, eta uste dut Irenek gogoan zerabilela urte askotako Hesperidina botila. Maiz (baina hau lehen egunetan gertatu zen bakarrik) komodetako tiraderaren bat itxi eta elkarri begiratzen genion, triste.

–Ez dago hemen.

Eta etxearen beste aldean galdutako guztiaren beste zerbait zen.

Baina abantailak ere eduki genituen. Garbiketa hainbeste erraztu zen non oso berandu jaikita ere, bederatzi eta erdietan esaterako, hamaikak baino lehen besoa besoaren gainean baikeunden. Irene ohitu zen sukaldera nirekin joaten eta bazkaria prestatzen lagun-

tzen. Ongi pentsatu eta haxe erabaki genuen: nik bazkaria prestatzen nuen bitartean, Irenek platerak prestatuko zituen, gauetz hotz jateko. Poztu ginen, beti delako pixka bat gogaikarria arratsaldean logelak hustu behar izatea sukaldean aritzeko. Orain nahikoa genuen Ireneren logelako mahaiarekin eta fianbre fuentekadarekin.

Irene pozik zegoen puntu egiteko denbora gehiago ateratzen zuelako. Ni apur bat galduta nenbilen liburuak zirela-eta, baina nire arreba ez atsekabetzearren aita zenaren zigilu-bilduma aztertzen hasi nintzen, eta horrek lagundu zidan denbora pasatzen. Dibertitu egiten ginen, nor bere gauzekin, ia beti Ireneren logelan bildurik, eroasoagoa baita. Batzuetan Irenek haxe esaten zuen:

–Begira bururatu zaidan puntu hau. Ez al du hirusta-itxurako marrazkia egiten?

Handik pixka batera neu nintzen paper-laukitxo bat begien aurrean ipintzen niona, Eupen eta Malmedyren zigiluren baten meritua ikus zezan. Ongi geunden, eta poliki-poliki pentsatu gabe bititzen hasi ginen. Badago pentsatu gabe bititzea.

(Irenek ozenki amesten zuenean nik berehala galtzen nuen loa. Ez nintzen inoiz ohitu ahal izan estatuaren edo papagaiaren ahots horrekin, ametsetatik baitator, eta ez eztarritik. Irenek zioen nire ametsak astindu gogorrek zirela, inoiz manta erorarazten zutenak. Gure logelen artean egongela zegoen, baina gauetz edozer entzuten zen etxe hartan. Arnasa hartzen entzuten genuen elkar, eztula egiten, aurreikusten genuen mesanotxeko lanpararen etengailuaren bila egindako keinua, edo elkarren lo galdu ugari.

Horretaz aparte etxean dena zegoen isil. Egunez zurrumuru domestikoak ziren, puntua egiteko galtzorratzen igurtzi metalikoa, karraskatxoa album filatelikoko orriak pasatzerakoan. Haritzezko atea, uste dut esan dudala, trinkoa zen. Sukaldean edo komunean, alde hartuarekin mugan geratzen zirenez, altuago mintzatzen ginen edo bestela Irenek sehaska-kantak abesten zituen. Sukalde batean beirak eta lozak nahiko zarata egiten dute beste edozein soinu sartzea galarazteko. Han ez genion isiltasunari tokirik uzten, baina logeletara eta egongelara itzultzen ginenean, orduan etxea mutu eta argi-ilunean jartzen zen, are, polikiago egiten genuen urratsa elkarri eragozpenik ez egiteko. Nik uste dut horregatik gertatzen zi-

tzaidala gauez, Irene ozenki amets egiten hasten zenean, berehala bizkortzen nintzela).

Ia gauza bera errepikatzea da, salbu eta ondorioetan. Gauez egarriak egoten naiz, eta ohera baino lehen Ireneri esan nion sukaldera nindoala baso bat ur hartzera. Logelako atletik (bera puntua egiten ari zen) sukaldeko hotsa entzun nuen; agian sukaldean edo agian komunean, ez zegoen jakiterik, pasabideko ukondoak zarata apaltzen baitzuen. Irene konturatu zen bat-batean gelditu nintzela, eta nire ondora etorri zen fisik ere esan gabe. Hotsa entzuten geratu ginen, eta argi aski nabarmendu zen haritzeko atez honatagoak zirela, sukaldean edo komunean, edo pasabidean bertan, ukondoa hasten den tokian, gure ondoan ia.

Ez genion elkarri begiratu ere egin. Ireneren besoa estutu nuen eta lasterka eginarazi nion nire ondoan kantzal-ateraino, atzera egin gabe. Zaratak handiagoak ziren, baina beti sorrak, eta gure bizkarrean. Atea kolpez itxi eta ezkaratzean geratu ginen. Han ez zen ezer entzuten.

–Alde hau ere hartu dute –esan zuen Irenek. Puntu-lana bere eskuetatik zintzilik zegoen, eta hariak ateraino iristen ziren, kantzal-ate azpitik galduz. Matazak beste aldean geratu zirela ikusi zue-nean bere puntu-lana askatu zuen begiratu ere egin gabe.

–Zerbait hartzeko astirik izan duzu? –galdetu nion, alferrik.

–Ez. Deus ez.

Soinean geneukanarekin geunden. Gogoratu nintzen nire logelako armairuan zeuden hamabost mila pesoez. Orain berandu zen.

Esकुmuturreko erlojua oraindik nirekin banuenez, gaueko ha-maikak zirela ikusi nuen. Nire besoaz Ireneren gerria inguratu nuen (negarrez ari zen, nik uste) eta kalera irten ginen. Urrundu baino lehen errukitu nintzen, sarrerako atea ondo itxi eta giltza es-toldara bota nuen. Ez zedin gizajoren bat, lapurtu nahian edo, etxe-an sar, ordu hartan eta etxea hartuta egonda.

AMATXOREN GUTUNAK





**B**aldintzapeko askatasuna dei zitekeen lasai asko. Atezain andreak gutun-azal bat ematen zion bakoitzean, Luisentzat aski zen Jose de San Martinen aurpegi txiki-ezaguna ikustea berriz zurbia zeharkatu beharko zuela ulertzeko. San Martin, Rivadavia, izenak ziren baina izen horiek kaleen eta gauzen irudiak ziren, Rivadavia sei mila eta bostehun, Floresko etxetzarra, amatxo, San Martin y Corrientes kafetegia, han batzuetan adiskideak zituen zain, non mazagranak<sup>1</sup> errizino olio ahogozo apur bat izaten baitzuen. Gutun-azala eskuan, *Merci bien, madame Durand* betikoaren ondoren, kalera irtetea ez zen aurreko egunean kalera irtetea bezala, aurreko egun guztietan irtetea bezala. Amatzoren gutun bakoitzak (baita gertatu berri zen oker absurdu eta erridikulua gertatu baino lehen ere) Luisen bizitza antzaldatzen zuen bat-batean, iraganera itzularazten zuen, ostera punpa egitera doan pilotaren antzera. Irakurri berri zuen hura irakurri baino lehen ere —orain berriz autobusean irakurtzen zuena, erdi haserreturik, erdi harritu-

---

1. Kafez, ronez eta urez egindako edari freskagarria. (I.O).

rik, erabat sinetsi gabe—, amatxoren gutunak beti ziren denboraren eten bat, Luisek nahi, antolatu eta lortu zuen gauzen ordenaren, bere bizitzan txertatu zuen ordenaren —Laura txertatu zuen bezala bere bizitzan, Paris txertatu zuen bezala bere bizitzan— barruko eskandalu txiki eta arriskurik gabea. Gutun bakoitzak une batez iradokitzen zuen (gero berak maitasunez erantzuteko ekintza berean ezabatzen baitzuten) gogor borrokatuz lorturiko askatasunak, edo besteek bere bizitza deitzen zuten artile-matazan guraize-kolpe basatiez ebakitako bizitza berri horrek, justifikazioa, lur gaineko tokia galtzen zuela, autobusak rue Richelieu zeharkatzen zuenean kale barrenak ezabatzen ziren bezala ezabatzen zela. Baldintzapeko askatasun hits bat baizik ez zen geratzen, parentesi artean bizi den hitza bezala bizitzearen inpresio irrigarria, esaldi nagusitik dibortziaturik, nahiz gehienetan esaldi horren euskarri eta azalpena izan. Eta ezinegona, eta berehala erantzuteko beharra, ate bera berriz ixten denean bezala.

Goiz hura amatxoren gutuna iristen zen beste edozein goiz bezalakoia izan zen. Laurarekin gutxitan mintzatzen zen iraganaz, ia inoiz ez Floresko etxetzarraz. Ez da Luisi ez zitziola gustatzen Buenos Airesez gogoratzea. Gehiago zen izenak saihesteko nahia (pertsonak aspaldi saihesten zituen, baina izenak, izenak egiazko mamuak dira, iraupen setati hori). Egun batez Laurari esaten ausartu zen: «Iragana hautsi eta bota ahal baledi, gutun baten zirriborroa edo liburu bat bezala. Baina hor dirau beti, kopia garbia zikintzen, eta nik uste dut horixe dela egiazko etorkizuna». Izan ere, zergatik ez zuten Buenos Airesez hitz egingo, han familia bizi baitzen, han adiskideek, noizean behin, postal bat esaldi amultsuez apaintzen baitzuten. Eta *La Nación*-eko errotograbatua, hainbeste andre adoretaren sonetoekin, dagoeneko irakurria izatearen sentsazio hori, zertarako galderaren sentsazio hori. Eta noizean behin kabinete krisiren bat, koronel hasereren bat, boxeolari izugarriren bat. Zergatik ez zuen hitz egin behar Buenos Airesi buruz Laurarekin? Baina Laura ere ez zen lehengo denborara itzultzen, inoiz txiripazko solasen batean ez bazen, eta batez ere amatxoren gutunak iristen zirenean, orduan zirkulaziotik kanpo dauden txanponak bezalakoak

ziren irudiak edo izenak erortzen uzten zituen, mundu zaharkitu baten objektuak urrutiko ibai ertzean.

–*Eh oui, fait lourd* –esan zuen bere aurrean eseritako langileak.

«Beroa zer den jakin ahal baleza –pentsatu zuen Luisek–. Otsaileko arratsalde batez ibil baledi Mayo etorbidetik, edo Linierseko karrikaren batetik».

Gutuna gutun-azaletik atera zuen berriz, ilusiorik gabe: paragrafoa han zen, argia bezain argi. Guztiz burugabea zen baina han zen. Bere lehen erreakzioa, ustekabearen ondoren, kokotean eman-dako kolpearen ondoren, beti bezala defentsa-erreakzioa izan zen. Laurak ez zuen irakurri behar amatxoren gutuna. Okerra irrigarria izanik ere, izen nahasketa bat izanik ere (amatxok “Victor” idatzi nahiko zuen eta “Nico” idatzi zuen), Laura nahigabetuko zen, ergelkeria litzateke. Noizean behi gutunak galtzen dira; hau gal baledi itsasoaren hondoa. Orain bulegoko komun zulutik bota beharko luke, eta, jakina, egun batzuk geroago Laura harrituko zen: «A zer gauza arraroa, ez da zure amaren gutunik iritsi». Ez zuen inoiz esaten *zure amatxo*, beharbada berak haurra zelariek galdu zuelako berea. Orduan berak erantzungo zuen: «Bai, arraroa da. Gaur bertan idatziko diot», eta idatzi egingo zion, amaren isiltasunaz harriturik. Bizitzak berdin jarraituko zuen, bulegoa, gaueko zinema, Laura beti lasai, onbera, bere nahiei adi. Autobusatik rue de Rennes-en jaitsi zenean, bat-batean galdetu zion bere buruari (izan ere ez zen galdera bat, baina nola esan bestela) zergatik ez zion Laurari amatxoren gutuna erakutsi nahi. Ez Laurarengatik berarengatik, Laurak senti zezakeenarengatik. Ez zitzaion gauza handirik inporta zer sentitzen ahal zuen, disimulatzen zuen bitartean (Ez zitzaion gauza handirik inporta zer sentitzen ahal zuen, disimulatzen zuen bitartean?). Ez, ez zitzaion gauza handirik inporta (Ez zitzaion inporta?). Baina lehen egia, atzetik beste bat egon zitekeela uste izanez, egirik behinena, nolabait esateagatik, zen Laurak jarriko zuen aurpegia, hartuko zuen jarrera inporta zitzaiola. Eta berarengatik inporta zitzaion, noski, Laurari amatxoren gutuna inportako zitzaion moduak beregan edukiko zuen eraginarengatik. Bere begiak eroriko ziren, une zehatz batean, Nico izenaren gainean, eta bazekien dardar arin batek hartuko zuela Lauraren kokotsa, eta gero esango zue-

la: «Hauxe gauza arraroa... zer gertatuko zitzaion zure amari?». Eta berak denbora osoan jakingo zuen Laurak gogor egiten ziola bere buruari oihuka ez hasteko, ez ezkutatzeko esku artean negarrak eta Nico izena aho dardartian marrazteak ordurako desitxuraturik edukiko zuketan aurpegia.

Publizitate agentzian, non diseinatzaile lan egiten baitzuen, gutuna irakurri zuen berriz, amatxoren beste gutun bat amatxoren gutun askoren artean, ezer apartekorik gabe, izenez okertu zen paragrafoa gorabehera. Hitza ezabatzen ahalko zuen, pentsatu zuen, Nico kendu eta Victor jarri, okerraren orde ez egia ezartzea, besterik ez, gero gutunarekin etxera itzuli Laurak irakur zezan. Amatxoren gutunak beti interesatzen zitzaizkion Laurari, zehazten zaila den modu batean berari zuzentzen ez zizkion arren. Amatxok Luisi idazten zion; bukaeran, edo inoiz gutunaren erdian, zera gaineratzen zuen, agur beroa Laurarentzat. Berdin zitzaion, interes handiz irakurtzen zituen, erreumak eta miopiak bihurrituriko hitzen baten aurrean zalantzak eginez. «Saridon hartzen ari naiz, eta medikuak salizilato pixka bat eman dit...». Gutunak, bi edo hiru egunez, marrazki-mahaiaren gainean pausatzen ziren; Luisek botako zituzkeen erantzun eta berehala, baina Laurak berriz irakurtzen zituen, emakumezkoek gustatu egiten zaie gutunak berrirakurtzea, alde batetik eta bestetik begiratzea, berriz atera eta berriz begiratzen dituzten bakoitzean bigarren zentzu bat ateratzen dietela ematen du. Amatxoren gutunak laburrak ziren, berri domestikoekin, nazioaren ordenari buruzko erreferentziaren bat edo beste ere bai (baina gauza haiek ezagunak ziren *Le Monde*-ko berriei esker, amaren eskutik beti berandu iristen ziren). Are, pentsa zitekeen gutun guztiak gutun berbera zirela beti, motza eta erdipurdikoa, deus interesgarririk gabea. Amatxok zuen onena zen ez zuela sekula semearen eta errainaren hutsak sortu behar zion tristeziaren aurrean etsi, ez eta minaren aurrean ere –hasieran hain ugaria oihuz eta malkoz–, Nicoren heriotzagatik minaren aurrean ere. Inoiz ez, ordurako Parisen eman zituen bi urteetan, amak ez zuen inoiz Nico bere gutunetan aipatu. Laurak bezala, Laurak ere ez zuelako aipatzen. Bietako inork ez zuen aipatzen, eta ordurako baziren bi urte baino gehiago Nico

hil zenetik. Bat-batean bere izena gutunaren erdian agertzea eskandalu bat zen, ia. Nico izena derrepente esaldi batean agertzea bera, *N* luze eta dardarati batez, buztan bihurria zuen *o* batez; baina are okerrago zen, izena esaldi ulergaitz eta absurdu batean zegoelako, senilitatearen iragarle baizik ezin izan zitekeen moduan. Bat-batean, amatxok denboraren zentzua galdu eta irudikatzen zuen ezen... Lauraren gutun bat jaso zuelakoa labur jakinarazi eta gero zetorren paragrafoa. Puntu bat, apenas markatua auzoko biltegian erositako tinta urdin ahularekin, eta gero bertatik bertara: «Gaur goizean Nicok zuei buruz galdetu du». Gainerakoa beti bezalakoa zen: osasuna, Matilde lehengusina jausi zen eta klabikula atera zitzaion, txakurrak ongi zeuden. Baina Nicok haietaz galdetu zuen.

Egia esan, erraza zatekeen Nico kentzea eta Victor jartzea, azken hau izanik dudarik gabe haietaz galdetu zuena. Victor lehengusua, beti bezain konplutua. Victor izenak Nicok baino bi letra gehiago zituen, baina borragoma batez eta iaiotasunez izenak trukatzen ahal ziren. Gaur goizean Victorrek zuei buruz galdetu du. Berezkoa baitzen Victor amatxo bisitatzera joan eta ez daudenei buruz galdetzea.

Bazkaltzera itzuli zenean, gutuna poltsikoan zegoen, ukitu gabe. Ez zion Laurari ezer esan nahi; Laura irribarre adiskidetsuz bere zain zegoen, Buenos Airesko garaietatik apur bat desitxuratu zela zirudien musuaz, Parisko aire grisak kolorea eta erliebea kenduko balizkio bezala. Bi urte baino gehiago zeramatzaten Parisen, Nico hil eta bi hilabete geroago atera ziren Buenos Airestik, baina egia esatera Luisek absentetzat jo zuen bere burua Laurarekin ezkondu zen egunetik beretik. Arratsalde batez, ordurako gaixorik zegoen Nicorekin mintzatu eta gero, zin egin zuen Argentinatik ihes egingo zuela, Floresko etxetzarretik, amarengandik, txakurrengandik eta Nicorengandik (ordurako gaixo zegoena). Hilabete horietan dena Nicoren inguruan mugitu zen, dantza baten irudian bezala: Nico, Laura, amatxo, txakurrak, lorategia. Bere zin egitea dantza-aretoan botila bat txikitu eta beira apurtuen zigor-zartada batez dantza eteten zuen keinu basatia izan zen. Dena izan zen ba-

satia egun haietan: ezkontza, abiatzea amarekiko itxurakeria edo kontsiderazioak oro alde batera utzita, gizarte-betebehar guztien ahaztea, erdi harriturik erdi muzindurik zeuden adiskideak ere ahaztea. Ezer ez zitzaion inporta izan, ezta Lauraren protesta-hasierra ere. Amatxo bakarrik geratzen zen etxetzarrear, txakurrekin eta botika-flaskoekin, Nicoren arropa oraindik armairuan eskegita zegoela. Geratzea zeukan, gainerakoek pikutara joatea zeukatzen. Amatxok itxuraz ulertu zuen, jada ez zuen Nicorengatik negar egiten, eta etxetik lehen bezala ibiltzen zen, zaharrek heriotzaren aurrean erakusten duten indarberritze hotz eta kementsuarekin. Baina Luisek ez zuen gogoratu nahi izaten agur-arratsalde hura zer izan zen, maletak, taxia ate ondoan, etxea hor bere haurtzaro guztiarekin, Nico eta biok gerra-jolasetan aritzen ziren lorategia, bi txakurrak, soraio eta ergel. Orain hori guztia ahazteko gauza zen, ia-ia. Agentziara joaten, afixak marrazten, bazkaltzera itzultzen, Laurak irribarrez hurbiltzen zion kafe-kikara edaten zuen. Zinemara maiz joaten ziren, basoetara ere bai, gero eta hobeki ezagutzen zuten Paris. Zortea eduki zuten, bizitza inork uste ez bezain erraza zen, lana ez zegoen hain gaizki, apartamentua polita zen, pelikulak bikainak. Orduan amatxoren gutuna iristen zen.

Ez zituen higuin; falta izan balitu, sumatuko zukeen askatasuna bere gainean erortzen zela pisu jasanezin bat bezala. Amatxoren gutunek esan gabeko barkamen bat ekartzen zioten (baina ez zegoen zer barkaturik), oraindik pasatzeko baliagarria zen zubia luzatzen zuten. Gutunetako bakoitzak lasaitzen edo larritzen zuen amatxoren osasunari buruz, familia-ekonomiaren berri, ordena baten irautea gogorarazten zion. Eta aldi berean ordena horri gorroto zion, Laura zela kausa, Laura Parisen zegoelako, baina amatxoren gutunetako bakoitzak beste inoren eta ordena baten konplize definitzen baitzuen, berak lorategian gau batez, Nicoren eztul amatatua, ia apala berriz entzun eta gero kasatu zuen ordena horren konplize.

Ez, ez zion gutuna erakutsiko. Izenak trukatzeko ez zen zintzoa, eta Laurak amaren esaldia irakurtzea, jasanezina. Bere oker groteskoa, une bateko baldarkeria ergela –borrokan ikusten zuen, idazluma zahar batekin, alde batera egiten zuen paperarekin, bere bista urriarekin– Laurarengan ernatuko zen hazi emankor bat bezala.

Hobe gutuna botatzea (arratsalde hartan bertan bota zuen), eta gauetz Laurarekin zinemara joatea, Victorrek haietaz galdetu zuela lehenbailehen ahaztuta. Victor, Victor lehengusu gizabidetsua izanik ere, Victorrek haietaz galdetu zuela ahaztuta.

Diabolikoa, uzkurtuta, aho urtuan zehar mihia pasatuz, Jerry tranpan noiz eroriko zain zegoen Tom. Jerry ez zen tranpan erori, eta Tomen gainean ezin konta ahaleko zoritxarrak jausi ziren. Gero Luisek izozkiak erosi zituen, jan egin zituzten koloretako iragarkiei arreta gabe begiratzen zieten bitartean. Pelikula hasi zenean, Laura bere aulkian hondoratu zen pixka bat gehiago, eta eskua Luisen besotik kendu zuen. Luisek berriz urrun sentitzen zuen, ezin jakin elkarrekin ikusten ari zirena jada gauza bera ote zen bientzat, nahiz eta gero pelikulaz mintzatu, kalean edo ohean. Bere buruari galde-tu zion (ez zen galdera bat, baina nola izendatu bestela) ea Nico eta Laura horren urrundurik egongo ote ziren zinemetan, Nicok kor-tejatzten zuenean eta elkarrekin ibiltzen zirenean. Hain segur, Floresko zinema guztiak ezagutu zituzketen, Lavallo kaleko ranbla ergel osoa, lehoia, gong-a jotzen duen atleta, gaztelaniazko azpitu-tu-luen egile Carmen de Pinillos, pelikula honetako pertsonaiak fik-ziozkoak dira, eta edozein koinzidentzia... Orduan, Jerryk Tomengandik ihes egiten zuenean eta Barbara Stanwycken edo Tyrone Powerren ordua hasten zenean, Nicoren eskua poliki pau-satuko zen Lauraren izterraren gainean (Nico gizajoa, hain herabe, hain senargai), eta biak auskalo zeren errudun sentituko ziren. Ederki zekien Luisek ez zutela ezer behin betikoren errurik; frogar-rik eztieta eduki izan ez balu ere, Laura Nicorengandik hain azkar deslotzea nahikoa zatekeen ikusteko harreman hori auzoak hezur-mamitutako simulakroa zela, auzoak eta auzokoek, Floresko gatz eta piperra diren kultur eta aisialdiko zirkuluek. Nahikoa izan zen Nico joaten zen dantza-areto berberera gau batez joateko kapritxoa, ausazko aurkezpen anaitasunezkoa. Agian horregatik, hasieraren erraztasunarengatik, gainerako guztia espero ez izateko moduko gogorra eta mingotsa gertatu zen. Baina orain ez zuen gogoratu nahi, komedia Nicoren derrota bigunarekin bukatu zen, tisikoaren neurriko heriotzaren babes malenkoniatsuarekin. Arraroa zena zen

Laurak inoiz ere ez izendatzea, eta horregatik berak ere sekula ez aipatzea, Nico hildakoa ere ez izatea, ezta koinatu hildakoa edo amatxoren semea ere. Hasieran, amatxoren purrustaden, negarren eta garrasien ondoren, osaba Emilioren eta Victor lehengusuaren esku-sartze zozoaren ondoren (Victorrek gaur goizean zuei buruz galdetu du), horrek lasaitasuna ekarri zion, gero izan zen berehalako ezkontza, telefonoz deitutako taxia eta jaka-hegaletan zahia zeukan funtzionario baten aurreko hiru minutuko egonaldia beste zere-moniarik gabea. Adroguero hotel batean babesturik, amarengandik eta ahaide suhartzu guztiengandik ihesi, Luisek eskertu zion Laurari inoiz ez aipatu izana mamu baten antzera senargaia izatetik koinatu izatera pasatu zen txorimalo gaixoa. Baina orain, itsaso bat, heriotza eta bi urte tartean, Laurak segitzen zuen aipatu gabe, eta berak isiltasun hori koldarkeriaz onartzen zuen, jakinik azken batez isiltasun hori laidogarria zela gaitzespen bat zeramalako bere baitan, eta damua, eta traizioarekin antza hartzen ari zen zerbait. Behin baino gehiagotan berariaz aipatu zuen Nico, baina bazekien horrek ez zuela balio, Lauraren erantzunak elkarriketaren norabidea aldatzea beste helbururik ez zuelako. Beren hizkeran Nicorengandik islatzen zituen lurralde geldo eta debekatu bat joan zen sortzen, bere oroitzapena eta bere izena kotoi zikin eta lika batean bilduz. Eta beste aldetik amatxok berdin egiten zuen, isiltasunezko konfabulazio harekin ustekabean bat eginez. Gutunek txakurrez, Matildez, Victorrez, salizilatoaz, pentsioa ordaintzeaz hitz egiten zuten. Luisek espero izan zuen amatxok bere semeaz ere inoiz hitz egingo zuela, berarekin bat egiteko Lauraren aurrean, maitasunez izanik ere, behartzeko Laura Nicoren izate postumoa onartzera. Ez beharrezkoa zelako, nori axola zitzaion deus Nicori buruzko ezer, bizi-rik edo hilik, baina bere oroitzapena toleratua izatea iraganaren panteoian, Laurak benetan eta betiko ahaztu zuelako froga ilun eta kontestagaitza zatekeen. Bere izenaren argi osoan deiturik, inkuboa desagertu zatekeen, lurra zanpatzen zuenean bezain ahul eta ilaun. Baina Laurak isiltzen zuen Nico izena, eta isiltzen zuen bakoitzean, esatea zatekeen berezkoena eta hala ere isiltzen zuen une zehatz hartan, Luisek sentitzen zuen berriz Nicoren presentzia Floresko lorategian, haren ez-tul diskretua entzuten zuen, ezkontza-oparirik

perfektuena prestatzen zuela, heriotza, andregaiia izandakoa eta anaia izandakoa ezkontza bidaia betean zeuden bitartean.

Handik astebetera Laura harritu egin zen amatxoren gutuna ez zelako iristen. Ohiko hipotesiak ekarri zituzten hizpidera, eta Luisek arratsalde hartan bertan idatzi zuen. Erantzunak ez zuen askorik larritzen, baina nahiago zukeen (goizean eskailerak jaisten zituenean sentitzen zuen) atezainak berari ematea, eta ez hirugarren pisura igotzea. Hamabost egun geroago ezagutu zuen betiko gutun-azala. Brown almirantearen aurpegia eta Iguazuko ur-jauzien bista bat. Kalera irten eta Laurak leihotik egin ohi zion agurrari erantzuna eman behar izan baino lehen, gutun-azala gorde zuen. Bobby kalera ihes egin eta handik egun batzuetara hazka hasi zen, txakur-zigarrrak jotako bateon baten kutsadura, noski. Amatxok osaba Emilioren lagun albaiteroari galdetu behar zion, Bobbyk ez ziezaion izurritea Negrori pasa. Osaba Emilioren iritzia zen akaroinan bainatu behar zituela, baina bera jada ez zegoen horrelako gauzetarako, hobe litzateke, beraz, albaiteroak hauts intsektizidaren bat edo janariarekin nahasteko zerbait errezetatzea. Auzoko andrearen katuak zigarrak jota zegoen, auskalo katuak ez ote diren txakurrak kutsatzeko gauza, hesiaren hariak tartean izanda ere. Baina nola interesatuko zitzaizkien bada atso-berriketa horiek, nahiz eta Luis beti oso txakurzalea izan eta txikitari txakur bat ohe-oinean zuela lo egin, Nicoz oso bestela, hau ez baitzen oso txakurzalea. Auzoko andreak eman zion aholkua izan zen dedeterekin<sup>2</sup> hautseztatzea, agian ez baitzen zigarra izango, txakurrek edozer harrapatzen baitute kaletik zehar dabilzanean; Bacacayko kantoian mota guztietako animalia arraroak zituen zirku bat zegoen, beharbada mikrobioak airean zebiltzan, gauza horiek. Amatxok ez zuen sustoetarako ere egiten, esne irakinez besoa erre zuen modistaren semea zela, zigarrak jotako Bobby zela.

---

2. DDT insektizida ezagunaz ari da. (I.O).

Gero bazegoen izartxo urdin bezalako zerbait (paperean trabatzen zen idazluma, amatxoren ernegazio-oihua) eta orduan gogoe-ta malenkoniatsu batzuk, zer bakar geratuko zen baldin eta, ematen zuen bezala, Nico ere Europara bazihoan, baina horixe zen zaharren patua, seme-alabak egunen batean alde egiten duten enarak dira, eutsi egin behar zaio gorputzak ematen duen bitartean. Auzoko andrea...

Norbaitek Luis bultzatu zuen, eskubide eta betebeharren aldarrikapen presatu bat bota zion Marseillako azentuarekin. Modu ez oso argi batez ulertu zuen *métro*-ko pasabide estutik aurrera sartu nahi zuen jendearen ibilia oztopatzen ari zela. Egunari bukatzeko geratzen zitzaion puska ere ez zen oso argia izan, Laurari hots egin zion esateko ez zela bazkaltzera joango, plazako banku batean eseri zen bi orduz, amatxoren gutuna berriz irakurtzeko, bere buruari galdetuz zer egin behar ote zuen erokeriaren aurrean. Ezer baino lehen, Laurarekin mintzatu. Zergatik (ez zen galdera bat, baina nola esan bestela) segitu ezkutatzen Laurari gertatzen zena. Orain ezin zuen gutuna galdu zelako plantak egin, bestearekin egin zuen bezala, jada ezin zuen erdizka sinetsi amatxo okertu zela eta Victor idatzi ordez Nico idatzi zuela, eta pena bat zela txotxolotzen hasi izana. Izan ere, gutun haiek Laura ziren, Laurarekin gertatuko zena ziren. Ezta hori ere: zegoeneko gertatua zena ezkondu ziren egunetik, eztei-bidaia Adroguen, Frantziara zekartzan itsasontzian etsiki elkar maite zuten gauak. Dena zen Laura, dena izango zen Laura orain, Nicok, amatxoren eldarnioan, Europara etorri nahi zuen honetan. Sekula baino konplizeago, amatxo Nicoz ari zitzaion Laurari, Nico Europara etorriko zela iragartzen ari zitzaion, eta horrelaxe esaten zuen, Europa, besterik gabe, jakinik hala ere Laurak ulertuko zuela Nico Frantzian lurreratuko zela, Parisen, arta handiz ahaztuta zego-elako plantak, gaixoa, egiten ziren etxe batean.

Bi gauza egin zituen: osaba Emiliori idatzi zion, kezkatzen zuten sintomen berri emanez, eta berehala amatxori bisita egin ziezaion eskatuz, gauza zertan zen ikusteko eta beharrezkoak ziren neurriak hartzeko. Koñak bat beste baten ondoan edan zuen, eta oinez joan zen etxera bidean Laurari zer esango zion hausnartzeko, azken finean Laurarekin hitz egin behar zuelako haren guztiaren

berri emateko. Kalerik kale konturatu zen nola kostatzen zitzaion orainaldian eta handik ordu erdira gertatuko zen horretan bertakotzea. Amatxoren gutunak Parisko bi urte haietako bizitzaren errealitatean hondoraino murgiltzen, itotzen zuen, gezur itundu baten gezurrean, atez kanpoko zorionean, denbora-pasek eta ikusgarriek eutsitakoa, isiltasunezko itun ez-borondatezkoan, non, itun negatibo guztietan lez, biak emeki-emeki elkarrengandik bereizten baitziren. Bai, amatxo, bai, zigarrak jotako Boby gaixoa, amatxo. Boby gaixoa, Luis gaixoa, zenbat zigar, amatxo. Floresko klubaren dantzaldian izan zen, amatxo, Nicok behin eta berriz esan zidalako joan nintzen, pentsatzen dut bere konkistarekin haizea eman nahi ziola bere buruari. Nico gaixoa, amatxo, inork oraindik sinesten ez zuen ezul idor harekin, arraiadun jantzi gurutzatu harekin, ilea brillantiaz orraztuta, rayonezko ttattar dotoretto haiekin. Batek hitz egin egiten du, elkarren begikotasuna sortzen da, nola ez du ba dantzatuko pieza hori bere anaiaren emaztegaiarekin, o, emaztegaia esatea askotxo esatea da, Luis, Luis deitzen ahal dizut, ezta. Harritzen nau Nicok zu etxera oraindik eraman ez izanak, bai horixe, zu amatxoren oso gustukoa izango zara. Nico hau, hain da zakarra, zure aitarekin ere ez zuen hitz egingo, noski. Lotsatia, bai, beti izan da lotsatia. Ni bezala. Zergatik egiten duzu irri, ez al didazu sinesten? Ni ez naiz ematen dudan bezalakoa, baina... Bero egiten du, ezta? Benetan, etxera etorri beharra daukazu, amatxo pozez txoratzten geratuko da. Hirurok bizi gara bakarrik, txakurrekin. *Che*<sup>3</sup> Nico, lotsagarria duk, ezkutuan heukan, *malandra*<sup>4</sup> halakoa. Gure artean horrela ibiltzen gara, Laura, edozer esaten diogu elkarri. Zure baimenarekin, tango hau dantzatuko nuke neskarekin.

Hain gutxi, hain erraz, benetan hainbeste brillantina eta rayonezko korbata. Laurak hautsi zuen Nicorekin okerreaz, itsukeriaz, anaia listoa gauza izan baitzen indarrez erakartzeko eta burua iraularazteko. Nico ez da tenisean aritzen, bai zera, xaketik eta filateliatik ez duzu aise aterako, ez horixe. Isilik, hain gauza gutxi koittadua,

---

3. *Che*, Argentinako hizkerako ohiko bokatiboa.

4. *Malandra*, lunfardera, bizimodu txarrekoa, gaizkilea.

Nico atzean geratzen joan zen, patrioko bazter batean galdurik, bu-larrerako jarabeak eta mate mingotsak kontsolatua. Atsedean hartze-ko agindu eta ohean geratu behar izan zuenean Villa del Parqueko Gimnasia y Esgriman dantzaldi bat suertatu zen. Bat ez dago horre-lako gauzak galtzeko, are gutxiago Edgardo Donatok jotzen duenean eta itxura ona duenean. Amatrixori hain iruditzen zitzaion ongi Laura paseoan atera zezan, arratsalde batez etxera eraman zutenetik alaba bat bezala hartu zuen. Kontuz, amatxo, mutila ahul dago, eta ezer kontatuz gero burua berotuko zaio. Gaixoez edozer irudika-tzen dute, Laura kortejatzen saiatzen ari naizela usteko du, ziur. Hobe da berak ez jakitea Gimnasiara joango garela. Baina nik ez nion hori esan amatrixori, etxean inork ez zuen sekula jakin elkarre-kin ibiltzen ginela. Gaixo koittadua hobetu arte, noski. Eta halaxe, denbora aurrera, dantzaldiak, bi edo hiru dantzaldi, Nicoren erra-diografiak, gero *petiso*<sup>5</sup> Ramosen autoa, Bebaren etxean egin ge-nuen parranda hartako gaua, kopa batzuk, erreka gaineko zubiraino autoz egindako paseoa, ilargia, hotel bateko leihoa bezalakoa zen ilargia han goian, eta Laura auto barruan ezetz esaten, apur bat edanda zegoen, eskuak trebe, musuak, oiuhu itoak, bikuinazko man-ta, isiltasunezko itzulera, barkamenezko irribarrea.

Irribarrea ia berdina zen Laurak atea ireki zionean. Labean erretako okela, entsalada eta flana zegoen. Hamarretan auzokoak etorri ziren, beren kideak ziren kanasta-jokoan. Oso berandu zela-rik, oheratzeko prestatzen ari zirenean, Luisek gutuna atera eta me-sanotxe gainean utzi zuen.

—Ez nizun lehen esan ez zintudalako kezkatu nahi. Uste dut amatxo...

Ohean etzanik, bizkarra emanez, itxoin egin zuen. Laurak gu-tuna gutun-azalean gorde zuen, gaumahaiko argia amatatu. Bere ondoan sentitu zuen, ez zehatz bere kontra, baina arnasa entzuten zuen belarritik gertu.

---

5. Gizonezkoiei ematen zaien izendapen afektuzkoa; soinkurutzeko altuera txikiko zaldiei ere aplikatzen zaie, eta hortaz, badirudi altueraz txiki direnei esaten zaiela. (I.O).

–Konturatzen zara? –esan zuen Luisek, ahotsa zainduz.

–Bai. Ez duzu uste agian izenez okertu dela?

Espero izatekoa zen. Peoi lau errege, peoi lau errege. Ederki.

–Agian Victor idatzi nahi izan zuen –esan zuen, azkazalak bere esku-ahurrean poliki-poliki iltzatuz.

–Egia da, jakina. Litekeena da –esan zuen Laurak. Errege zaldia alfil hiru.

Lo egiten zutelako plantak egiten hasi ziren.

Laurari ongi iruditu zitzaion osaba Emilio izatea zekien bakarra, eta egunak aurrera, ez zuten berriz gaia atera. Etxeratzen zen bakoitzean, Luisek Lauraren esaldi edo keinu ustekabeko bat espero zuen, hutsune bat baretasun eta isiltasunezko beila hartan. Beti bezala zinemara joaten ziren, beti bezala larrua jotzen zuten. Luisentzat Laurarengan gordetzen zen misterio bakarra hauxe zen, ea nola atxikitzen zitzaion, etsirik, bi urte lehenago espero izaten ahal zuten bezalakoa deusetan ez zen bizitza hari. Orain ongi ezagutzen zuen, orain onartu behar zuen ezen, konfrontazio gorenetakor-  
duan, Laura Nico zena bezalakoa zela, atzean gelditu eta inertzia-  
z baizik ekiten ez diotenetakoa, nahiz eta deus ez egite horren kariaz,  
benetan deusetarako ez bizitze hartan batzuetan borondate ia izu-  
garria erabili. Askoz hobeki moldatu zatekeen Nicorekin berarekin  
baino, eta biok bazilhoazen horretaz jabetzen ezkondu ziren egune-  
tik, eztei-bidaia-  
ren eta desioaren oniritzi beratzaren ondoko lehen  
posizio hartzeetatik. Laura, orain, berriro amesgaiztoan murgiltzen  
zen. Amets asko egiten zuen, baina amesgaiztoa bestelakoa zen,  
Luisek ezagutzen zuen Lauraren gorputzaren beste mugimendu as-  
koren artetik, hitz nahasiak eta itotzen ari den animalia-  
ren oihu la-  
burrak ziren. Amesgaiztoa itsasontzian hasi zen, oraindik Nicoz hitz  
egiten zutenean, Nico hil berri zelako eta haiek aste gutxi batzuk  
geroago itsasoratu zirelako. Gau batez, Nicoz gogoratu eta beren  
artean gauzatuko zen isiltasun tazitoez iradokitzen hasia zenean,  
Laurak amesgaiztoa eduki zuen. Noizean behin errepikatu egiten  
zen eta beti gauza bera izaten zen, Laurak aihen latz batez eta han-

ken dardar konbultsiozko batez iratzartzen zuen, bat-batean uko erabatekoa zen garrasia, amesgaiztotik, materia likazko zati itzel bat balitz bezala, gainera erortzen zitzaion zerbait bi eskuez eta gorputz osoz kasatuko balu bezala. Berak astindu egiten zuen, baretzen, ura ekartzen zion, negar-zotinka eta bere bizitzaren beste aldeak oraindik erdi xaxaturik edaten zuena. Gero esaten zuen ez zela ezertaz gogoratzen, ikaragarria zen baina ezin zen azaldu, azkenean loak bere sekretua eramaten zuen, Luisek bazekielako Laurak bazekiela aurrez aurre egon berri zela bere ametsean sartzen zen harekin, auskalo zer mozorro izugarriaren pean, eta Laurak haren belaunak besarkatuko zituela ikarazko bertigoz, agian alferreko maitasunezko bertigoz. Beti berdin gertatzen zen, baso ura ematen zion, isilik, Laurak burua berriro burkoaren gainean emango zuenaren zain. Beharbada egunen batean ikara harrotasuna baino indartsuagoa izango zen, baldin eta hura harrotasuna bazen, behintzat. Orduan agian berak bere aldetik egiten ahalko zuen borrokan. Beharbada dena ez zegoen galduta, beharbada bizitza berria irribarreak eta zinema frantsesak osatutako simulakro hura ez baina beste zerbait izatera iritsiko zen.

Marrazki-mahaiaren aurrean, jende arrotzak inguratutik, Luisek bizitzan aplikatu gogo zituen simetria-zentzua eta metodoa berreskuratzen zituen. Laurak gaia ukitzen ez zuenez, osaba Emilioren erantzuna, itxuraz soraio, itxoiten zuelarik, berari zegokion amarekin konpontzea. Gutuna erantzun zuen azken asteotako berri hutsalak kontatuz, eta postdarako utzi zuen esaldi zuzentzailea: «Beraz, Victor Europara etortzekotan da. Mundu guztiak bidaiatu nahi du, turismo-agentzien propagandaren ondorioa bide da. Esaiozu idazteko, behar dituen datu guztiak emango dizkiogu. Esaiozu, baita ere, gure etxea berea dela».

Osaba Emiliok berehala idatzi zuen, postaren itzuleran ia, eta idatzi, lehor, ahaide hurbil eta samindu bati, hain samindua non Nicoren gaubeilan kalifikagaitzat kalifikatu baitzuen gertatutakoa, zegokion gisan. Luisekin aurrez aurre haserretu ez bazen ere, halako kasuetan ohi den sotiltasunez erakutsi zituen bere sentimenduak, itsasontzira agur egitera joan gabe, elkarren segidako bi urteotan

bere urtebetetze eguna ahaztuz. Orain amatxoren koinatu izateak ezartzen zion betebeharra betetzera mugatzen zen, eta emaitzak labur ematen zituen. Amatxo oso ongi zegoen, baina ez zuen berriketarako gogo handirik, ulertzekoa zena aintzat harturik azken garaiotan pairatutako atsekabeen handia. Nabaria zen oso bakar zegoela Floresko etxean, logikoa zena bizitza guztia bere bi semeekin eman duen ezein ama ezin baita gustura egon oroitzapenez beteriko etxe itzel batean. Auzian zeuden esaldiei zegokienez, osaba Emiliok asuntorearen delikatua kontuan harturik beharrezkoa zen artaz jokatu zuen, baina, damurik, ez zuen ezer garbirik atera, amatxo ez zegoelako berriketarako gogoz, eta are, egongelan hartu baitzuen, bere anaia politikoarekin sekula egiten ez zuena. Maila terapeutikoko iradokizun baten aurrean, erantzun zuen erreumatismoz landara ezin hobeki zegoela, egun horietan hainbeste alkanadora lisatu beharrak nekatzen zuen arren. Osaba Emiliok zer alkanadorez ari zen jakin nahi izan zuen, baina amatxok buru-apaltze batez erantzun zion, xerez ardoa eta Bagley galletatxoak eskaintzearekin batera.

Amatxok ez zien eman osaba Emilioren gutuna eta bere eraginkortasun falta nabarmena eztabaidatzeko asti handirik. Lau egun geroago gutun-azal zertifikatu bat iritsi zen, nahiz amatxok ederki zekien Pariserako airezko gutunak ez direla zertifikatu behar. Laurak telefonoz hots egin zion ahalik eta lasterren itzul zedin eskatuz. Ordu erdi bat geroago Laura aurkitu zuen, arnas-hartze neketsu batean, mahai gaineko lore hori batzuen kontenplazioan galdurik. Gutuna tximinia gaineko apalategian zegoen, Luisek irakurri eta gero utzi zuen toki berean, hain justu. Lauraren ondoan eseri zen, zain geratu zen. Laurak bizkarrak harrotu zituen.

–Erotu egin da –esan zuen.

Luisek zigarroa piztu zuen. Keak negarra eragin zion. Jokoa aurrera zihoala ulertu zuen, pieza mugitzeko bere txanda zela. Baina partida hau hiru jokalariren kontua zen, laurena agian. Orain seguru zekien amatxo ere xake-taularen aurrean zegoela. Emeki-emeki labain egin zuen besaulkian behera, eta bere aurpegiak esku elkartuen mozerro alferrekoa jantzi zuen. Laura negarrez zegoela en-

tzuten zuen, behean atezain andrearen umeak oihuka eta korrika zebiltzan.

Gauak aholkua ekarri ohi du, eta abar. Lo astun eta gor bat ekarri zien, gorputzek funtsean desio ez zuten gatazka monotono batean topo egin eta gero. Berriz ere itun tazittoa ixten zen: goizean eguraldiaz, Sain-Cloudeko krimenaz, James Deanez mintzatuko ziren. Gutunak apalategi gainean zirauen, eta tea edaten zuten bitartean ezin izan zuten ez ikusiarena egin, baina Luisek bazekien lanetik bueltan ez zuela han aurkituko. Laurak arrastoak ezabatzen zituen bere prestutasun hotz eta eraginkorraz. Egun bat, beste egun bat, egun bat gehiago. Gau batez ederki egin zuten irri, auzokoen kontuekin, Fernandelen entzuketa bat zela tarteko. Antzerki obra bat ikustera joatez eta Fontainebleaura asteburu pasa joatez hitz egin zen.

Marrazki-mahaiaren gainean beharrezkoak ez ziren datuak pilatzen ziren, dena amatxoren gutunak esaten zuenaren arabera zen. Itsasontzia Le Havrera iritsiko zen ostirala 17an, goizean, eta tren berezia 11:45ean sartuko zen Saint Lazaren. Ostegunean antzerki obra ikusi eta ederki dibertitu ziren. Bi gau lehenago Laurak amesgaiztoa eduki zuen berriz, baina bera ez zen ura ekartzen nekatu, eta bakarrik lasai zedin utzi zuen, bizkarra emanez. Gero Laurak trankil egin zuen lo, egunez udako jantzi bat ebakiz eta josiz jarduten zuen. Frigorifikoa ordaintzen bukatu bezain pronto josteko makina elektrikoa erosiko zutela esan zuten. Luisek amatxoren gutuna aurkitu zuen mesanotxeko tiraderan eta bulegora eraman zuen. Itsas-konpainiara deitu zuen, amatxok egun zehatzak ematen zituela seguru zegoen arren. Horixe bakarrik zen seguru, gainerakoa ez baitzen pentsatzeko modukoa ere. Osaba Emilio babo hori. Onena Matilderi idaztea izango zen, Matilderengandik urrutiratua egonik ere Matildek ulertuko zuen esku-sartzea, amatxo babestea beharrezkoa zela. Baina, benetan (ez zen galdera bat, baina nola esan bestela) babestu behar zen amatxo, amatxo, hain zuzen ere? Une batez urrutiko deia eskatu eta berarekin hitz egitea pentsatu zuen. Xerez ardoaz eta Bagley galletatxoez gogoratu zen, bizkarrak harrotu zituen. Ez zegoen Matilderi idazteko denborarik, hori ere

ez, nahiz eta egiatan denbora egon, baina agian hobe zen ostirala 17 arte itxoitea, eta gero... Koñakak jada ez zion pentsatzen laguntzen, edo ez behintzat beldurrik gabe pentsatzen. Gero eta hobeki gogoratzen zuen amatxok Buenos Airesko azken asteotan, Nico lurperatu eta gero, eduki zuen aurpegia. Berak oinazetzat hartu zuena orain bestelako agertzen zitzaion, konfiantza falta erresumindu bat zeukan zer bait, beragandik libratzeko etxetik urrutiko alor antzu batean abandonatu duela sentitzen duen animaliairen espresio moduko bat. Oraintxe hasi zen amatxoren aurpegia benetan ikusten. Oraintxe ikusten zuen benetan, familia osoa bisitak egiteko eta Nicorengatik doluminak emateko txandakatu zen egun horietan, Laura eta bera ere Adroguetik etorri ziren laguntzarren, berarekin egotearren. Tarte labur batez geratzen ziren, gero agertzen zirelako osaba Emilio, edo Victor, edo Matilde, eta denak zirelako gaitzespen hotz berbera, gertatutakoak asaldatutako familia, Adroguere ngatik, eta zoriontsuak zirelako, Nico ordea, koittadua, Nico ordea. Sekula ez zuten susmatuko noraino lagundu zuten eskura zegoen lehen itsasontzian sar zitezen; bidaia ordaintzeko elkartu izan balira bezala, itsasoraino opariekin eta zapiekin maitasunez eramateko.

Baina semea zen aldetik bere etxeko lana Matilderi lehenbailehen idaztea zen. Horrelako gauzak pentsa zitzakeen oraindik laugarren koñaka baino lehen. Bosgarrenean berriz pentsatu eta irri egiten zuen (Paris oinez zeharkatzen zuen bakarrik egoteko eta buroa argitzeko), irri egiten zuen semea zen aldetiko egitekoaz, semeek etxeko lanik baleukate bezala, etxeko lanak eskolako laugarren mailakoak balira bezala, laugarren maila nazkagarriko andereño sakratuarentzako etxeko lan sakratuak. Zeren semea zen aldetiko etxeko lana ez baitzen Matilderi idaztea. Zertarako (ez zen galdera bat, baina nola esan bestela) amatxo erotuta zegoelako plantak egiten segitu? Egin zitekeen bakarra zen deus ez egitea, egunak pasatzen uztea, ostirala izan ezik. Beti bezala Laurari agur esan zionean, presazko afixa batzuk bukatu behar zituela eta ez zela bazkaltzera itzuliko esanez, hain zegoen seguru gainerakoaz non erants baitzezakeen: «Nahi baduzu elkarrekin joango gara». Geltokiko kafetegian babestu zen, ez hainbeste disimuluarengatik, ikusia izan gabe ikusi ahal izateko abantaila txikia edukitzeagatik baizik. Hamaikak

eta hogeita hamabostean Laura deskubritu zuen, bere gona urdina-  
rengatik, atzetik baina urrutitik jarraitu zion, ikusi zuen oholari be-  
giratzen ziola, gero langile bati galdetzen ziola, barrura sartzeko  
txartela erosten zuela, nasan sartzen zela, non jendea elkartzen bai-  
tzen, itxoiten ari direnen itxurarekin. Fruta kutxez zamatutako gur-  
dixa baten atzetik Laurari so egiten zion, nasaren irteeratik gertu  
geratzearen edo nasan barrena egitearen artean zalantzan zebilela  
zirudien. Harridurarik gabe begiratzen zion, jarrera interesgarria  
eduki dezakeen intsektu bati bezala. Trena berehala iritsi zen eta  
Laura bagoietako leihoetara, nor berearen bila, hurbiltzen zen jen-  
dearekin nahastu zen, oihuetatik eta trenetik, barruan norbait ito-  
tzen ariko balitz bezala, ateratzen ziren eskuen artean. Gurdia  
inguratu eta nasan sartu zen, fruta kutxa gehiagoren eta koipe-or-  
banen artean. Zegoen tokitik bidaiariak ikusiko zituen ateratzen zi-  
renean, ikusiko zuen berriz Laura pasatzen, bere aurpegi lasaitua,  
zeren ez al zen Lauraren aurpegia lasaitasunez betea egongo? (Ez  
zen galdera bat, baina nola esan bestela). Eta gero, azken bidaiariak  
eta azken *changadoreak*<sup>6</sup> pasatu eta gero, azkena izateko abantaila be-  
retzat gordez, orduan bera ere aterako zen, eguzkiz betetako plazara  
jaitsiko zen koñaka edatera joateko kale kantoiko kafetegian. Eta  
arratsalde horretan bertan amatxori idatziko zion gertaera irrigarria  
(baina ez zen irrigarria) ezertarako ere aipatu gabe, eta gero Laura-  
rekin hitz egiteko adorea edukiko zuen (baina ez zuen adorerik  
edukiko eta ez zuen Laurarekin hitz egingo). Edozer zela eta, koña-  
ka, horretan ez zegoen batere dudarik, eta zihoala dena pikutara.  
Denak pasatzen ikustea horrela, mordoetan, oihuz eta malkoz be-  
sarkatzen zirela, ahaideak lorian, nasa feria-karrusela bezalakoa zen  
erotismo merke batek eskobatzen zuela, maleta eta fardelen artean  
eta azkenik, azkenik, aspaldiko, erre zara, Ivette, jakina, eguzki zora-  
garria eduki genuen. Ergeltasunarekin bat egiteko gustu hutsez, an-  
tzekotasunak bilatzen hasiz gero, hurbil pasatu ziren gizonetako bi  
argentinarrik izango ziren, ile-mozketak, berokiek, Parisen sartzeak  
sortutako aztoramena disimulatzeke aire askietsiak salatzen zituz-

---

6. Jatorrizkoan, "*changadores*": behin-behineko lan txikiak egiten dituzten pertsonak.

ten. Antzekotasunak bilatzen hasiz gero, bat, batez ere, Nicoren antzekoa zen. Bestea ez, eta egia esan hasierakoa ezta ere, lepo askoz lodiagoari eta gerri zabalagoari erreparatuz gero. Baina gustu hutsez antzekotasunak bilatzen hasiz gero, hasierako horrek, zeina ordurako pasatu eta irteerarantz aurreratzen baitzen, maleta bakar bat ezker eskuan, Nico ere ezkerria zen bera bezala, hasierako horrek bizkar apur bat kargatu hori eta sorbalda-ebakera horixe zituen. Eta Laurak gauza bera pentsatuko zuen, atzetik zetorrelako hari begira, Luisek ongi ezagutzen zuen espresio bat aurpegian, amesgaiztotik iratzarri eta, aireari tinko begiratzuz, ohean esertzen zeneko espresioa, begiratzuz, orain zekien, lotarako orduan garrasi eta borroka eginarazten zuen mendeku izendaezina buruturik, bizkarra emanez urruntzen zen hari.

Antzekotasunak bilatzen hasiz gero, gizona ezezaguna zen, jakina, aurrez ikusi zuten maleta behe-gainean pausatu zuenean txartela bilatu eta irteerako gizonari emateko. Laura irten zen aurretik geltokitik, urrundu eta autobusean gal zedin utzi zuen. Kantoiko kafetegian sartu eta aulkitxo batean amildu zen. Geroago ez zen gogoratu edateko zerbait eskatu ote zuen, ahoa erretzen zion hori koñak merkearen kutsua ote zen. Arratsalde osoan afixetan lan egin zuen, atsedetik hartu gabe. Noizean behin amatxori idatzi behar ziola pentsatzen zuen, baina irteera-ordua arte atzeratzen joan zen. Paris oinez zeharkatu zuen, etxera iristean atezain andrea ezkaratzean aurkitu zuen, harekin mintzatu zen tarte batez. Gustura geratuko zatekeen atezainarekin edo auzokoekin hizketan, baina denak sartzten zihoazen euren apartamentuetan eta afaltzeko ordua hurbiltzen zen. Poliki igo zen (egia esan, beti igotzen zen poliki birikak ez nekatzeagatik eta ezula ez egiteagatik), eta hirugarrenera iritsi zenean atean bermatu zen atsedetik pixka bat hartzeko, etxe barruan gertatzen denari adi dagoenaren jarreran. Gero deitu egin zuen betiko bi joaldi laburrez.

–A, zu zara –esan zuen Laurak, masail hotz bat eskainiz–. Berandu arte geratu beharko ote zenuen pentsatzen hasia nintzen. Okela puntuz pasatuko zen honezkero.

Ez zen pasatu, baina ez zuen ezere zaporerik. Une hartan gauza izan balitz Laurari galdetzeko zergatik joan zen geltokira, agian

kafeak edo zigarroak zaporea berreskuratuko zuketen. Baina Laura ez zen egun guztian etxetik mugitu, gezurra esateko beharra balu bezala esan zuen, edo Luisek egunari edo amatxoren keria negargarriei buruzko iruzkin burlatia egingo zuela itxoingo balu bezala. Kafea nahasten zuela, ukondoak mantelaren gainean, une egokia pasatzen utzi zuen berriz ere. Lauraren gezurrak jada ez zuen inportata, gezur bat gehiago hainbeste musu arrotzen artean, dena Nicoz blai zegoen hainbeste isiluneraren artean, zeinean biotako edozeinengan ez baitzen Nico ez zen deus. Zergatik (ez zen galdera bat, baina nola esan bestela) ez jarri hirugarren plater bat mahaian? Zergatik ez alde egin, zergatik ez itxi ukabila eta zartarazi aurpegi triste eta eramankor hartan, zigarroaren keak desitxuratu, bi uren artean bezala joan-etorrian mugiarazi eta amatxoren aurpegia bera balitz bezala emeki-emeki gorrotoz betearazten zuen aurpegi hartan? Beharbada ondoko gelan zegoen, edo agian atean bermatuta, zain, bera arestian bezala, edo sartua zen jada beti nagusi izan zen lurraldean, maindireen lurralde zuri eta epelean, Lauraren amesgaiztoan hainbestetan joaten zen lurralde hartan. Han egongo zen zain, bizkarraren kontra etzanik, berak ere bere zigarroa erretzen zuela, ez-tul pixka bat eginez, pailazo-aurpegiaz irri egiten, zainetan odol tanta sanorik gelditzen ez zitzaioneko hil aurreko egunotako bezalako pailazo-aurpegiz.

Beste gelara pasatu, lan-mahaira joan, lanpara piztu zuen. Ez zuen amatxoren gutuna berriz irakurri behar merezi bezala erantzuteko. Hasi zen idazten, amatxo maitea. Idatzi egin zuen: amatxo maitea. Papera bota zuen, zera idatzi zuen: amatxo. Tinkotzen zen ukabila bezala sentitzen zuen etxea. Dena zen estuago, itogarriago. Apartamentua biontzat nahiko zen, biontzat zegoen pentsatua. Begiak altxatu zituenean (idatzi berri zuen: amatxo), Laura atean zegoen, hari begira. Luisek idazluma utzi zuen.

–Zuri ez zaizu iruditu askoz argalago dagoela? –esan zuen.

Lurak keinu bat egin zuen. Masailetik behera dir-dir paralelo bat jaisten zitzaion.

–Pixka bat –esan zuen–. Norbera aldatzen doa...